



ESCUELAS PÍAS

PROVINCIA EMAÚS

Aragón, Vasconia, Andalucía

**EMAUS BARRUTIKO
PRESENTZIA PROIEKTUA 2019-
2023**

Jesusen jarraitzaile eta Calasanzen ondarearen oinordeko bezala, gure **presentzia eskolapioak eraldatu eta zaindu nahi ditugu, leku horietan denbora Historia, Gertaera eta Salbazio profetia bezala bizi dezagun.** Modu honetan, deia eta harrera, sendaketa, formakuntza, kreazio, erlazio, topaketa, akonpainamendu eta elkarte prozesuan biziko dugu.

Honek diszernimendu bat eskatzen digu, Espirituaren entzute aktiboa, gure ardurapean jarritako tokien, denboren eta pertsonen maitasunezko zaintza baten bidez. Honek berrikuntzaz eta zentzuz beteriko prozesuak sortzera bideratzen gaitu, aldaketei bakarrik begiratu beharrean, etorkizuneko garaiak bultzatu eta sustatuko dituztenak. Era berean, gure helburu eta irizpideei egokitutako etengabeko ebaluaketa-prozesuak sortzera garamatza, baita lidergo partekatua eta konprometitzen eta salbatzen gaituen misioaren deiei erantzuteko prozesuak sortzera ere.

Modu honetan Jainkoaren dei sortzailea jarraitzen dugu eta, bizitza fedearen ikuspuntutik ikusten duten Emauseko ibiltari bezala, Kanaan en esan zituen Mariaren hitzak gogoratzen ditugu: “Egizue Berak dioena” (Jn, 2,5). Eta horrela, Piztueraren esperientziatik abiatuta, nortasun pertsonal eta elkartekoa emango digun “Mendekoste eskolapio berri bat” bizi nahi dugu.

Horretarako asmo hauek hartzen ditugu aintzat:

“Neure espirtua isuriko diet gizaki guztiei. Zuen seme-alabek profetizatu egingo dute, zuen gazteek ikuskariak izango, zuen zaharrek ametsak egingo.” (Eg. 2,17)



1. **GURE ESKOLAPIO ESKAINTZA GAURKOTU ETA ESKAINI guztiei eta bizitza guztirako**, toki seguru, abegitsu, hazkundean eta bizitza bete bat eskaintzeko ume, gazte, familia eta modu desberdinetan parte hartu nahi dutenei. Lagunduko diguten eta gizatasunean, kristautasunean eta eskolapio mailan bizitza sakona eskainiko duten prozesuak birsortu nahi ditugu eta deialdia egin nahi diegu guztiei zoriontsu egiten gaituen Misio honetara.

- a. #VocationalChallenge kultura bokazionalari ausardiaz erantzuten.
- b. Toki bakoitzean Kasalanz Kideak mugimenduaren proposamenean aurrera eginez eta gazteei sinodoaren dinamikaz entzunez.
- c. “Eskolapio ildoko dinamikan” formakuntza bultzatuz.
- d. Elkarren arteko misio taldeak indartuz eta argituz.
- e. “Familien proiektu marko” bat definituz.
- f. Pertsona ahulenen segurtasuna eta babesa bermatuz.
- g. Kristau Eskolapio Elkarte pertsona guztien elkarte bezala ikusaraziz.
- h. Emauseko presentzia guztietan Eskolapio Senidegoa bultzatuz eta indartuz.
- i. Gure bizitza eta misioa gizarteari eskaintzeko gure elkarte proiektua birsortu.
- j. Kulturen eta erlijioen arteko topaketa bultzatuko duten tokiak sortuz.

"Goazen berriro Jaunaren mezua aldarrikatu genuen hiri haietara, senideak nola dauden ikustera»." (Eg. 15, 36)



2. **Gure dinamismoa indartu, probintziako sare modura, beti IRTEERA PIUNTUAN egon dadin**, gizarte eta eliza bezala, erantzun beharreko erronkei aurre egiteko, ahulenen interesetik eta presentzia bakoitzean eman zaizkigun aberastasun guztien mirespenetik abiatuta.
- a. *Gure misio hezitzaile eta ebanjelizatzailetik gizadiaren erronka handiak onartuz: Krisi ekologikoa eta jasangarritasuna, pobrezia eta esklusioa, genero berdintasuna, kultur aniztasuna.*
 - b. *Toki bakoitzeko aukeren eta indarguneetan oinarriturik, eskolapio presentzia hausnartuz.*
 - c. *Gure probintziako sarearen lotura indartuz (erlijiosoak, Anaidia, ikastetxeak, Itaka-Eskolapioak, parrokiak, aterpetxeak eta gauden misio ekintza guztiak osatzen duten sarea).*
 - d. *Eskolapioen erronka globalak gureak bezala hartu, Mozanbikeko gure presentzia bereziki.*
 - e. *Gure misioa bultzateko pauso garrantzitsuak emanez arlo pertsonalean eta elkarteetan: beste demarkazioetara eta Emauseko beste presentzietara pertsonak bidali, agindu eta ministeritza berriak, elkarren arteko elkarreak...*
 - f. *Emaus eta Brasil-Boliviako akordioa eguneratuz.*

"Fededun guztiak bat ziren bihotzez eta gogoz, eta inork ez zuen esaten zeukana berea zuenik, baizik eta dena denena zuten." (Eg. 4, 32)



3. **LIDERGO PARTEKATUAREN, parte-hartzearen, talde-lanaren eta komunikazioaren KULTURA birsortuz**. Honek ebanjelizazioan eraginkorrak izaten lagunduko digu eta guregana gerturatzen denari Itxaropena eta Berri ona dakarren esperientziak eskaintzen lagunduko digu, bakoitzak bere bizi estiloa eraiki dezan.
- a. *Elkarrekin, zerbitzu eta lidergo jasangarri ereduak elkarbanatuz eta definituz.*
 - b. *Lan taldeak partaidetzan indartuz eta berrituz.*
 - c. *Gure prozesuetako gazteen artean lidergoa eta parte hartzean oinarritutako kultura bat bultzatuz, protagonismoari eta sormenari espazioak irekiz.*
 - d. *Genero berdintasuneko irizpideak barneratuz.*
 - e. *Ministeritza eta bokazio aniztasuneko kulturaren sakonduz.*
 - f. *Dugun kreatibitate guztia azaleratzeko ezagutza eta formazioko elkartrukeko sareak eraikiz.*
 - g. *Amesten eta egiten duguna Itxaropen eta bizi gaituen Berri On moduan komunikatuz.*

“Orotan erakutsi izan dizuet, horrela behar dela lanean saiatu gauza ez direnei laguntzeko, Jesus Jaunaren hitz haiek gogoratzuz: “Zorion gehiago du emateak” hartzeak baino” (Eg. 20, 35)



4. **Denbora beteko gure EKINTZA hezitzaile, pastoral eta sozialean sakonduz**, duen pertsonen eta errealitatearen benetako izaera berritzaile eta eraldatzailea bermatzeko; horrela, gizarte justu, anai-arreben arteko, inklusibo eta abegikorraren eraikuntzan laguntzeko.

- a. *Itaka-Eskolapios-Eskolak aliantza sendotuz, denbora beteko proposamen bat eskaintzeko.*
- b. *“Suma y Sigue” berrikuntza proiektua Emauseko hezkuntza proiektuaren baitan finkatuz eta sakonduz .*
- c. *Ikaskuntza eta zerbitzua metodologian sakonduz.*
- d. *Gure hezkuntza misioan, dimentsio sozial eta pastoralaren ikuspegiak areagotuz.*
- e. *Gure berrikuntza pedagogikoaren baitan Erlijioaren Irakaskuntza Eskolarra barneratuz.*
- f. *Gehien behar dutenen artean proposamen hezitzaile, pastoral eta sozial berriak bultzatuz.*
- g. *Gure misio eta xedearen zerbitzura gure proiektuen egokitasuna bermatuko duen ebaluaketa eta kalitate sistema garatuz.*
- h. *Gure erakundearen sostengu gizatiar, ekonomiko eta ekologikoa bermatuz.*

